



## PERTSONAK GIZARTE-LARRIALDIAREN ERDIAN LAS PERSONAS EN EL CENTRO DE LA EMERGENCIA SOCIAL

**Uztaila 9 Julio**

9:30 - 11:00

1

*Distantzian nola esku-hartu, eragina  
hartzaileengan eta arreta-ereduetan*

Como intervenir en la distancia, impacto en las  
personas destinatarias y modelos de atención

### Hizlariak - Ponentes

#### **Marta Saenz**

Koordinatzaile Orokorra/Coordinadora General Zabaltzen - Sartu Koop.Elk  
(Gizarte-desabantailan dauden pertsonen gizarte eta lan munduratzean lan egiten duen  
erakundea)

#### **Amaia de las Heras**

Koordinatzailea /Coordinadora de Arrats Elkartea (Presoentzat eta preso ohientzat, eta  
bazterkeria-egoeran dauden beste pertsona batzuentzat giza-baliabideak eta baliabide  
juridikoak martxan jartzeko lan egiten duen elkartea).

#### **Silvia Urquijo**

CEAR Euskadi. Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordeko enplegu-teknikaria // Técnica de  
empleo en CEAR Euskadi.Comisión de Euskadi de Ayuda al Refugiado (Nazioarteko babesa  
behar duten eta/edo bazterkeria-egoeran dauden errefuxiatu, lekualdatu, aberrigabe eta

migratzaileen Giza Eskubideak eta garapen integrala babesteko eta sustatzeko lan egiten duen erakunde).

## Hausnarketa-testuingurua

Osasun-krisia dela eta **aurrez aurreko esku-hartze jarduerak** bertan behera geratu dira, baina ez normalean esku-hartzen dugun pertsonen bizitza eta beharrak, horiek jarraitu egin dute, eta haien beharrei dagokienez, gehienetan, aldatu eta/edo handiagotu egin dira.

Erakundeetatik eskaintzen diren jarduera eta zerbitzuek **harremanen aldetik duten balioa** bereziki erasan du Covid-19aren krisiak, eta hori kezagarria da, **aurrez aurrekoan sortzen den lotura** dela eta.

Zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonekin esku-hartzearen gakoetako bat gertutasuna da, entzute aktiboa, haien beharrak entzutea eta gure, haien eskura dauden aukera eta baliabideen eskaintza zabaltzen saiatzea: enplegu-baliabideak, baliabide sozialak, komunitate-baliabideak eta abar.

Aldi horretan, erakunde askok erabaki dugu erabiltzaileekin esku-hartzen jarraitzea, testuinguruak eskaintzen zizkigun aukeretatik, eta une sozial eta bizi-une honetara egokitzen saiatu gara.

Aurre egin diogun erronketako bat, batez ere **bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin** esku hartzeari dagokionez, aurrez aurrekoa ez den laneko metodoa izan da. Kalean bizitzen egon daitezkeen edo infraetxeetan bizi diren pertsonak dira, eta gainera, txirotasun-edo zaurgarritasun-egoeratik kultura digitalik edota ekipamendu informatikoa izateko aukerarik ez dutenak.

Askotan, enplegu-bilaketako ibilbideetan ere ez dauden pertsonak izan ohi dira, oraindik ere bizi-prozesuko une horretan ez baitaude. Pertsona horiekin, harremana mantentzeko modu bakarra sakelako telefono bidez izan da, baina horrek muga handiak ditu. Harremanetan jartzeko eta eusteko balio dezake, baina ez dirudi bere horretan lan-metodologia.

Honelako saio bat garatzearen arrazoia da denen artean ezagutza eta *know-how*a partekatzea eta eredu bat, aurrez aurrekoa ez den esku-hartze metodologia bat eraikitzen saiatzea, ñabardura asko dituen, lan egiten dugun pertsonentzat aukera ugari eskainiko dituen.

## Elkarrizketarako helburuak

- Aldi honetan esku hartu dugun pertsonengan izan diren **aldaketa eta/edo beharrei buruzko hausnarketak partekatzea.**
- Zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonekin esku hartzeari dagokionez erakundeetatik emandako **erantzunari buruzko hausnarketak partekatzea.**
  - Topatutako zailtasunak
  - Egokitzapena eta aldaketa
- **Esku-hartze metodologia alternatiboei buruzko gakoak partekatzea eta ekarpenak egitea** (urrunekoak, erdi-presentzialak eta abar).
- Sortutako eta sor daitezkeen beharrak lantzeko **etorkizuneko esku-hartze proposamenei buruzko hausnarketa egitea.**

## Nola sar naiteke?

[Bete galdetegia](#); eta saioa baino egun batzuk lehenago sartu ahal izateko esteka jasoko duzu.